PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DEL CONTRATO DE SERVICIOS PARA LA DINAMIZACIÓN DEL PROCESO DE TRABAJO ANUAL DEL CONSEJO DE INFANCIA Y ADOLESCENCIA DEL ARARTEKO

1. OBJETO DEL CONTRATO.

El objeto del presente contrato es la dinamización del proceso de trabajo que el Consejo de Infancia y Adolescencia del Ararteko realiza con cadencia anual.

2. JUSTIFICACIÓN DEL SERVICIO.

El Consejo de Infancia y Adolescencia del Ararteko es el órgano de participación de los niños, niñas y adolescentes de la institución y se concibe como un espacio de reflexión crítica en torno a las cuestiones y ámbitos en los que la institución se encuentra trabajando para ofrecer su asesoramiento y perspectiva. Está compuesto por 24 adolescentes (entre 14 y 17 años) procedentes de diferentes puntos de la Comunidad Autónoma Vasca. Organiza su trabajo alrededor de un tema monográfico anual, desarrollado como proceso global a través de encuentros presenciales, mayoritariamente.

Por otra parte, el Ararteko, de forma más concreta, su Oficina de Infancia y Adolescencia, forma parte de la Red Europea de Defensorías de Infancia (ENOC), que mantiene y dinamiza el programa ENYA, destinado a recoger la voz de los chicos y chicas europeos a través de los órganos de participación de las distintas defensorías. El Consejo de Infancia y Adolescencia del Ararteko viene participando en este proyecto desde 2018 y entra en sus previsiones seguir haciéndolo en los próximos años. La participación en el proyecto determina la temática a trabajar anualmente (siempre referenciada a los derechos de niños, niñas y adolescentes), el calendario de encuentros y algunos elementos metodológicos mínimos.

El personal del Ararteko garantiza los elementos estructurales del Consejo y se ocupa de la relación con los chicos y chicas, sus familias y los centros educativos, las renovaciones, pertinentes autorizaciones, etc. Mantiene, de igual manera, la relación y coordinación con la Red ENOC y el proyecto ENYA, con sus consiguientes gestiones administrativas (envío de documentos, traducciones del y al inglés, etc.). Por último, gestiona la reserva de los equipamientos en los que se celebran las sesiones, así como la manutención y los desplazamientos necesarios de los chicos y chicas.

La dinamización del proceso de trabajo anual, sin embargo, requiere de personal cualificado y especializado en estos cometidos, además de una dedicación en tiempo que no se puede garantizar con los medios propios de la Oficina de Infancia y Adolescencia, por lo que se hace necesario contar con un equipo de personas que, en estrecha colaboración con esta, diseñe y desarrolle la dinámica que procure el acompañamiento necesario a los chicos y chicas integrantes del Consejo para que elaboren las propuestas susceptibles de ser trasladadas a las personas e instancias pertinentes.

3. CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO.

3.1. Tareas:

Si bien, como se ha indicado en el punto anterior, el Consejo trabaja una temática distinta cada año, las necesidades de activar, movilizar, moderar, conducir o acompañar al grupo de adolescentes en su reflexión se mantienen en el tiempo. Su función no es la de expertos en contenidos, sino responsables de procesos. Así, lo que se denomina "dinamización del proceso de trabajo del Consejo de Infancia y Adolescencia", supone las siguientes tareas principales:

- Diseñar, con las orientaciones e indicaciones de la Oficina de Infancia y Adolescencia del Ararteko, el plan de trabajo anual sobre el tema o asunto designado por el programa ENYA o, en su defecto, por la propia institución del Ararteko. Momento: anualmente, meses de enero-febrero

- Preparar de forma detallada las actividades y metodología dispuestas en el calendario del plan de trabajo anual y que mejor respondan a los objetivos planteados en este. Momento: previo a cada una de las actividades.

- Dinamizar las sesiones (actividades) en las que se reúna el Consejo conforme a lo planificado: proponer las actividades, dar las orientaciones pertinentes, regular el grupo y su trabajo, procurar conclusiones.

De forma complementaria:

- Elaborará informe final, con descripción del proceso realizado y del producto final resultante.

- Colaborará con otras personas u organizaciones contratadas para la presentación de las conclusiones adoptadas, si fuera necesario.

- Incorporará colaboraciones puntuales de personas u organizaciones expertas en la temática trabajada, si se considerara necesario.

3.2. Características del proceso.

El proceso y, de forma consecuente, las dinámicas previstas en él:

- deberá estar diseñado con enfoque de derechos humanos y de derechos de infancia y adolescencia;
- deberá fomentar la participación activa y el pensamiento crítico de los chicos y chicas;
- deberá buscar conclusiones que hagan efectivos los derechos de niños y niñas contenidos en la Convención de Naciones Unidas sobre los Derechos del Niño y, especialmente, los relativos a ser escuchados, recibir información adecuada, expresarse libremente.

3.3. Sesiones:

El Consejo de Infancia y Adolescencia celebra, habitualmente, 3 encuentros anuales:

1. Sábado completo en los meses de febrero-marzo.
2. Fin de semana en el mes de junio (de viernes tarde a domingo).
3. Sábado completo en los meses de octubre-noviembre.

Las circunstancias, no obstante, pueden hacer necesaria la modificación de esta estructura o su formato, lo que se realizará de manera acordada con la Oficina de Infancia y Adolescencia del Ararteko.

4. OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD CONTRATISTA

La organización prestadora del servicio:

- Designará para la realización del proyecto y la dinamización del plan anual un equipo de dos profesionales, al menos, con las características de titulación y experiencia señaladas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares. Este equipo se habrá de mantener inalterado durante el proceso anual, salvo circunstancias de fuerza mayor, para garantizar el desarrollo coherente del plan y facilitar las relaciones de y con los chicos y chicas del Consejo.
- Trabajará en todo momento en diálogo con la Oficina de Infancia y Adolescencia.
- Aportará los materiales necesarios para el desarrollo de las distintas actividades o técnicas a realizar en las sesiones.

- Podrá incorporar a algunas de las sesiones o actividades personas expertas u organizaciones referentes en la temática que en ese momento se esté trabajando. Esta participación se podrá dar en forma de colaboración o remunerada. La eventual remuneración de esta colaboración corresponderá a la entidad adjudicataria.
- Presentará informe final de lo acontecido en el ciclo de sesiones, con descripción del proceso realizado y del producto final resultante.
- Si para la presentación del trabajo realizado por el Consejo en los foros o talleres de ENYA se precisara de un formato definido por la organización (documento, audiovisual…), colaborará en la elaboración del mismo, facilitando toda la información de la reflexión realizada y las conclusiones/recomendaciones/acuerdos alcanzados.
- Garantizará la experiencia y pericia de la persona o personas dinamizadoras designadas para el servicio.
- Garantizará la utilización del euskera y el castellano en todas sus actuaciones, facilitando la relación y el contenido del trabajo del grupo en cualquiera de las dos lenguas.

5. OBLIGACIONES EN LO TOCANTE A LA PROTECCIÓN DE NIÑOS, NIÑAS Y ADOLESCENTES

Como queda señalado en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, es obligación legal para todas las personas que desarrollan actividades con niños, niñas y adolescentes la aportación de certificación negativa del Registro Central de delincuentes sexuales y de Trata de Seres Humanos, al objeto de garantizar la protección de los chicos y chicas participantes en el Consejo. Con esta misma finalidad y orientación, el Ararteko se ha dotado de una Política de protección a la infancia y la adolescencia, que materializa el compromiso de la organización con ese propósito general de protección y pretende garantizar los más altos estándares de conducta profesional y personal, con el fin de que no se produzca perjuicio alguno para los niños, niñas y adolescentes durante su participación en actividades o proyectos del Ararteko. Para ello, prevé una serie de medidas en los ámbitos preventivo y de respuesta ante situaciones de maltrato o trato inadecuado que la empresa prestadora del servicio deberá conocer.

Para ello, la Resolución que regula esta Política de Protección, disponible en la web del Ararteko, recoge: "todos los prestadores de servicios cuya actividad suponga el contacto con niñas, niños y adolescentes participantes en actividades de la institución (…)", serán informados de la existencia y contenido de esta política de protección, **recibiendo un ejemplar en caso de ser solicitado**".

ARARTEKOKO HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUAREN URTEKO LAN PROZESUA DINAMIZATZEKO ZERBITZU KONTRATUAREN PREZKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratu honen xedea Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseiluak urtero burutzen duen lan prozesua dinamizatzea da.

2. ZERBITZUAREN JUSTIFIKAZIOA.

Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Bulegoa erakundearen haur eta nerabeen parte-hartzerako organoa eta aholkularitza eta ikuspegia eskaintzeko erakundeak jorratzen diharduen gaien eta arloen inguruko gogoeta kritikorako gunea da. Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat tokitako 24 nerabeek (14 eta 17 urte bitartekoak) osatzen dute. Urtero gai monografiko baten inguruan antolatzen du lana, gehienbat, aurrez aurreko topaketen bitartez garatzen duen prozesu globala.

Bestalde, Arartekoa, zehatzago, Haur eta Nerabeentzako Bulegoa, Haurren Defentsa Erakundeen Europako Sarearen (ENOC) parte da; eta sareak ENYA programa, defendatzaileen partaidetza organoen bitartez neska-mutil europarren ahotsak batzeari zuzendua, mantentzen eta dinamizatzen du. Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseiluak proiektu honetan parte hartu du 2018tik eta hurrengo urteetan parte hartzen jarraitzeko aurreikuspena dauka. Proiektuan parte hartzeak urtero landu beharreko gaia (beti haur eta nerabeen eskubideei lotua), topaketen egutegia eta gutxieneko baliabide metodologiko batzuk zehazten ditu.

Arartekoko langileek Kontseiluaren osagai estrukturalak bermatzen dituzte eta neska-mutilen, familien eta hezkuntza zentroen arteko harremanaz, berrikuntzez, beharrezko baimenez eta abarrez arduratzen dira. Horrez gain, ENOC Sarearekin eta ENYA proiektuarekin harremana eta koordinazioa mantentzen dute, dagozkien administrazio kudeaketekin batera (dokumentuak bidaltzea, itzulpenak ingelesetik eta ingelesera eta abar). Azkenik, saioak ospatzeko guneen erreserbak kudeatzen dituzte, baita neska-mutilentzako mantendua eta beharrezko desplazamenduak ere.

Hala eta guztiz ere, urteko lan prozesua dinamizatzeko beharrezkoak dira arloan espezializatutako langile gaituak, baita Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren berezko baliabideekin bermatu ezin daitekeen denbora eskaintza ere. Hori dela eta, beharrezkoa suertatzen da bulegoarekin lankidetzan arituko den pertsona talde bat

izatea, Kontseiluko neska-mutilei dagokion pertsona eta instantziei helarazi ahal izango zaizkien proposamenak eratzen lagunduko dien dinamika sortu eta garatuko duena.

3. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK.

3.1. Zereginak:

Aurreko puntuan adierazitakoaren arabera, Kontseiluak urtero gai bat lantzen duen arren, denboran mantentzen dira nerabe taldea euren gogoetan aktibatzeko, mobilizatzeko, moderatzeko, eramateko edo laguntzeko beharrak. Zerbitzuaren eginkizuna ez da edukietan aditua izatea, bazik eta prozesuen arduraduna izatea. Halaber, "Haur eta Nerabeen Kontseiluaren lan prozesuaren dinamizazioa" deritzona, honako zeregin hauek osatzen dute:

- Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren orientabide eta jarraibideekin ENYA programak, edo Arartekoak berak, izendatutako gaiari buruzko urteko lan plana diseinatzea. Momentua: urtero, urtarrila eta otsaila bitartean.

- Xehetasunez antolatzea urteko lan planaren egutegian ezarritako helburuei hoberen erantzuten dizkieten jarduera eta metodologiak. Momentua: jarduera bakoitza baino lehenago.

- Saioak (jarduerak), non Kontseilua bilduko den, antolatutakoaren arabera dinamizatzea: jarduerak proposatzea, beharrezko orientabideak eskaintzea, taldea eta honen lana egokitzea, ondorioak erdiestea.

Modu osagarrian:

- Azken txostena egingo du, garatutako prozesuaren eta amaierako produktuaren deskribapenarekin.

- Elkarlanean arituko da hartutako ondorioen aurkezpena egiteko kontratataturiko pertsona edo erakundeekin, behar izatekotan.

- Jorratutako gaian adituak diren pertsona edo erakundeak ekarriko ditu noizean behin elkarlanean aritzeko, beharrezkoa suertatzen bada.

3.2. PROZESUAREN EZAUGARRIAK.

Prozesua eta, ondorioz, bertan aurreikusitako dinamikak:

- giza eskubideen eta haur eta nerabeen eskubideen ikuspegitik diseinatu beharko da;
- neska-mutilen parte-hartze aktiboa eta gogoeta kritikoa sustatu beharko ditu;
- Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenean bildutako haurren eskubideak, bereziki, entzuna izatekoa, informazioa egokia jasotzekoa eta libreki hitz egitekoa, bermatzen dituzten ondorioak bilatu beharko ditu.

3.3. Saioak:

Haur eta Nerabeen Kontseiluak, normalean, urtean 3 topaketa ospatzen ditu:

1. Larunbat osoa otsaila eta martxoa bitartean.
2. Asteburua ekainean (ostiral arratsaldetik igande arratsaldera).
3. Larunbat osoa urria eta azaroa bitartean.

Hala eta guztiz ere, egoeren arabera beharrezkoa izan litzateke egitura honen edo formatuaren aldaketa, Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Bulegoarekin erabakiko da hori.

4. ERAKUNDE KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Zerbitzua eskaintzen duen erakundeak:

- Proiektua garatzeko eta urteko plana dinamizatzeko, Administrazio Klausula Berezien Agirian adierazitako titulazioa eta eskarmentua daukaten, gutxienez, bi profesionaleko taldea izendatuko du. Talde hau ezin izango da aldatu urteko prozesuan zehar, larrialdi egoerarik egon ezean, planaren garapen koherentea bermatzeko eta harremana errazteko Kontseiluko neska-mutilekin eta euren artean.
- Haur eta Nerabeentzako Bulegoarekin elkarlanean arituko da momentu oro.
- Jarduerak garatzeko beharrezko materialak edo saioak burutzeko teknikak erabiliko ditu.
- Jorratutako gaian adituak diren pertsona edo erreferentziazko erakundeak ekarri ahal izango ditu saio edo jardueraren batean. Parte-hartze hori elkarlanekoa edo ordaindua izan daiteke. Elkarlan honen balizko ordainketa erakunde adjudikaziodunaren ardura izango da.

- Saioen zikloan jazotakoari buruzko azken txostena aurkeztuko du, garatutako prozesuaren eta amaierako produktuaren deskribapenarekin.
- Kontseiluak egindako lana ENYAren foro edo tailerretan aurkezteko erakundeak zehaztutako formatua beharrezkoa izatekotan (dokumentua, ikus-entzunezkoa…), horren sorreran parte hartuko du eta egindako gogoetari buruzko eta hartutako ondorioei/gomendioei/erabakiei buruzko informazio guztia emango du.
- Zerbitzurako hautatutako pertsona dinamizatzaileen eskarmentua eta trebetasuna bermatuko ditu.
- Jarduketa guztietan euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatuko du eta taldearen harremana eta taldearen lanaren edukia bi hizkuntza horietako edozeinetan erraztuko du.

5. HAUR ETA NERABEEN BABESERAKO BETEBEHARRAK

Administrazio klausula berezien pleguan zehaztutakoaren arabera legezko betebeharra da haur eta nerabeekin jarduerak garatzen dituzten pertsona guztiek Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Erregistro Nagusiko ziurtagiri negatiboa aurkeztea, Kontseiluan parte hartzen duten neska-mutilen babesa bermatzeko. Xede eta orientabide horrekin, Arartekoak haurrak eta nerabeak babesteko politika ezarri du, erakundeak babesteko helburu orokor horrekin duen konpromisoa gauzatu egiten duena, eta jokabide profesional eta pertsonaleko estandar gorena bermatzea helburu duena; haur eta nerabeei inolako kalterik ez eragiteko Arartekoaren proiektu edo jardueretan parte hartzen duten bitartean. Horretarako, zerbitzua ematen duen enpresak ezagutu beharko dituen neurriak aurreikusi ditu prebentzioren alorrean eta tratu txarreko eta desegokiko egoerei erantzuna emateko.

Horretarako, Arartekoaren webgunean eskuragai dagoen Babeserako Politika arautzen duen Ebazpenak, honako hau jasotzen du: “Erakundearen jardueretan parte hartzen duten haur eta nerabeekin harremana izango duten zerbitzu emaile guztiek (…)” babes politika honen eta edukiaren berri izango dute, eta, **eskatuz gero, ale bat jasoko dute**.